



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko martxoaren 8a

38. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-22/MOC-00110. Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da genitalak aldatzeko operazioetarako erreferentzia-zentroen sare bat diseinatu eta ezar dezan. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordeak onetsia (2. or.).
- 10-23/MOC-00014. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa gaurkotu dezan. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordeak onetsia (3. or.).
- 10-23/DEC-00007. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste baitu ezin larriagoa eta zuzenbideko estatu bati ez dagokiona dela Nafarroako Gobernuko kontseilari bat zelatatu ahal izana. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).
- 10-23/DEC-00008. Adierazpen instituzionala, martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 10-22/PES-00154. Galdera, Mendigorriko hondakin organikoen biometanizazio plantaren ingurumen-baimen integratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 10-22/PES-00211. Galdera, PLATENA ekainaren 15etik 17ra bitartean ez aktibatze erabakiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 10-22/PES-00212. Galdera, ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduak aurreikusten dituen debekuak, ohar laranja mailarekin, Nafarroako Erdialdeko abiadura handiko trenerako obretan aplikatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 10-22/PES-00299. Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoaren jarraipenerako organoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/MOC-00110. Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da genitalak aldatzeko operazioetarako erreferentzia-zentroen sare bat diseinatu eta ezar dezan.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordeak 2023ko martxoaren 1ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita genitalak aldatzeko operazioetarako erreferentzia-zentroen sare bat diseinatu eta ezar dezan. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du diseinatu eta finka dezan erreferentziatzeko zentroen sare bat sexu-organoak aldatzeko ebakuntzetarako, horien kalitate gorena ziurtatze aldera herrialde osoko herritarrei, bai eta hurbiltasun fisiko handiagoa eta gaur egun dauden itzarote-zerrenden murrizketa nabarmena ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmen berri bat sinatu dezan osasun-alorrean Euskal Autonomia Erkidegoarekin, xedatuko duena sexu-organoak aldatzeko ebakuntza bat behar duten nafarrek Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean egiten ahaliko dutela ebakuntza.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahal den neurrian ezar dezan sexua berresleitzeko kirurgiako unitate bat Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan, diziplina anitzeko Transbide unitate teknikoarekin koordinatuta”.

Iruñean, 2023ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/MOC-00014. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa gaurkotu dezan.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordeak 2023ko martxoaren 1ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa gaurkotu dezan. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Bi hilabeteko epean, Nafarroan emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa gaurkatzeko lantalde bat eratu dezan.

2. Lantaldean eta berraztertu beharreko Protokoloan honako hauek egon daitezten:

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen babesarekin eta arretarekin lotutako jarduketak-esparruetako teknikariak, bai eta berraztertu beharreko Protokoloa prestatzean ere.

- Talde parlamentario bakoitzeko ordezkari bat.

- Nafarroan Emakumeen Genitalen Ebaketa pairatzen duten emakumeekin zuzenean esku hartzen duten gizarte-entitateetako ordezkariak”.

Iruñean, 2023ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/DEC-00007. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uste baitu ezin larriagoa eta zuzenbideko estatu bati ez dagokiona dela Nafarroako Gobernuko kontseilari bat zelatatu ahal izana.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak uste du ezin larriagoa eta zuzenbideko estatu bati ez dagokiona dela Nafarroako Gobernuko kontseilari bat zelatatu ahal izana.

2. Nafarroako Parlamentuak bere nahia adierazten du, gai hau sakonean iker dadin, jakite

aldera Nafarroako Gobernuko kide gehiago egoera berean egon ahal izan den.

3. Nafarroako Gobernuak eskatzen du erantzukizunak argitu daitezten eta beharrezkoak diren neurriak har daitezten halakorik berriro ez gertatzeko”.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-23/DEC-00008. Adierazpen instituzionala, martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna, dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bat egiten du Nafarroako Berdintasunerako Institutuak sustatutako “Por ti. Por todas” “Zuregatik.Guztiengatik” kanpainarekin, zeinaren bidez nabarmendu nahi baita borroka feminista eta berdintasunari buruzko politika publikoen bidez eginiko lana lagungarria izaten ari dela Nafarroa osoko emakumeen bizitza eta aukerak hobetzeko.

2. Bat egiten du Nafarroako txoko guztietan antolatutako ekintza guztiekin, bai eta emakume-

en eskubideetan atzera egitea aldeztu dutenen mezuak zalantzan jartzearekin ere.

3. Konpromisoa hartzen du, egunerokoan eta bere eskumeneko esparruan, jarrerak eta konpromisoak mantentzeko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz hasitako gizarte-eraldaketari eusteko eta bide horretan aurrera egiteko, gizarte justu eta demokratikoagoa lortzeko bermea baita”.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

10-22/PES-00154. Galdera, Mendigorriko hondakin organikoen biometanizazio plantaren ingurumen-baimen integratuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Mendigorriko hondakin organikoen biometanizazio plantaren ingurumen-baimen integratuari buruzkoa. Galdera 2022ko maiatzaren 6ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Mendigorriko hondakin organikoen biometanizazio plantaren ingurumen-baimen integratua eguneratzeari buruz (10-22-PES-00154). Instalazioaren titularrak Bioenergía Mendi SL da. Galdera hori dela eta, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Ingurumeneko zuzendari nagusiaren txostenean dauden erantzunak helarazten dizkio.

1. Lehen galdera: Egia al da 2020an Mendigorriko plantan tratatuak izateko sartu ziren tonak guztira 68.707,74 izan zirela?

– Erantzuna:

Hondakin kopuruak hirugarren galderaren erantzunean aipatutakoak dira.

2. Bigarren galdera: Egia al da 2022ko martxoaren 7ra arte ingurumen baimen integratuak ez zuela baimentzen plantan 28.991 tona baino gehiago jaso eta tratatzerik?

– Erantzuna:

Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 4ko 107E/2017 Ebaz-

penean ezarritakoaren arabera, instalazioaren tratamendu ahalmena urtean 28.991 tonakoa zen.

107E/2017 Ebazpen hori, ingurumen baimen integratua ofizioz aldatzekoa, deuseztatu egin zen Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 16ko 116E/2017 Ebazpenaren bidez, eta ondorioz jarduketak atzera ekarri ziren ofiziozko aldaketaren prozedura ebatzi aurreko unera, titularrak entzunaldiaren izapidean aurkeztu zituen alegazioak baloratzeko. Zerbitzu honek alegazioak baloratu zituen eta, haietan oinarrituta, artxibatu egin ziren ofiziozko aldaketaren espedienteko jarduketak. Halaxe ageri da Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzuko zuzendariaren 2017ko abuztuaren 3ko Ofizioan.

Ondorioz, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren urriaren 4ko 775/2013 Ebazpenean ezarritako ahalmena mantendu da, hau da, 33.100 tona guztira eta horietatik 9.500 tona minda (ebazpen horren bidez aldaketa egin zen txerrikumeen ekoizpenerako instalazioaren eta hondakin organikoen biometanizazio plantaren ingurumen baimen integratua).

3. Hirugarren galdera: Zenbat tona hondakin tratatu dira plantan 2015, 2016, 2017, 2018, 2019, 2020 eta 2021. urteetan?

– Erantzuna:

URTEA	KOPURUA (TONAK)
2015	36.813,21
2016	51.489,17
2017	50.740,04
2018	60.271,25
2019	67.244,74
2020	68.707,74
2021	79.736,51

4. Laugarren galdera: Zer neurri hartu ditu ingurumen arloan eskumena duen departamentuak 2015etik 2021era bitartean, ekidite aldera plantan tona baimenduak baino gehiago tratatzea?

– Erantzuna:

2015etik 2021era bitartean instalaziora hiru ikuskapen bisita egin dituzte Ekonomia Zirkularren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko teknikariek. Zehazki, 2017-12-15ean, 2020-06-04an eta 2021-10-14an.

Hiru bisitetako txostenetan digestoreetako egonaldi kalkulatuak adierazten da: 30 egun ingurukoa 2017ko txostenean eta 20 egun ingurukoa 2020ko eta 2021eko txostenean; eta adierazten da digestioa mesofiloa dela (36-38^o C) digestore primarioan eta termofiloa (50-55^o C) sekundarioan.

Digestio anaerobiokoari buruzko testu teknikoetan zabalduak irizpideen arabera, 14 eguneko egonaldia gomendatzen da hondakinak 30^o C-ko tenperaturan digeritzen badira, eta 10 eguneko tenperatura 35^o C-koa bada. Instalazioko digestore primarioak erregimen mesofiloan dihardu, 36 – 38^o C-ko tenperaturan. Beraz, gomendatutako egonaldia 10 bat eguneko litzateke. Digestore sekundarioak, berriz, erregimen termofiloan dihardu (50 – 55^o C), eta gomendatutako egonaldia antzekoa litzateke, edo are laburragoa. Horregatik guztiagatik, hurrenez hurrenko ikuskapen jarduketetan ikusi da instalazioan egindako hondakin-tratamendua onargarria dela eta lortutako digestioa behar adina egonkorturik dagoela.

Adierazitako guztia kontuan izanik, lehenengo ikuskapenetik uste izan da biometanizazio plantak funtzionamendu egokia duela eta orain arte tratatutako hondakin kopururako behar adinako ahalmena duela. Izan ere, ez da ingurumenerako inolako eragin kaltegarririk egiaztatu.

Halaber, digestioa kudeatzeko hurrenez hurrenko planak onetsiz, beti bermatu da lurralde-oinarri nahikoa digestioa nekazaritzako ongari gisa egoki erabili ahal izateko, nahiz eta instalazioetan tratatutako hondakin kopurua gero eta handiagoa izan.

Hori horrela dela berretsi da digestioaren eta lurzoruaren kontrol eta jarraipenaren bidez, ingurumen baimen integratuan ezarritako baldintzen arabera.

Urtero berrikusten da ea digestioen banaketa bat datorren digestioen ekoizpen eta kudeaketa planarekin.

Egoera ikusirik, onargarritzat jo da instalazioaren funtzionamendua eta instalazioak daukan ingurumen baimen integratuan ezarritakoaren betetzea.

Ekonomia Zirkularren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariaren martxoaren 7ko 62E/2022 Ebazpenak (zeina deuseztatu baita Nafarroako Gobernuaren 2022ko uztailaren 27ko Erabakiaren bidez, Mendigorriko Udalak administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretik egindako errekerimendua baietsita) ebazpen bakarrean bateratzen zituen biometanizazio plantari ezarritako baldintza guztiak –baldintza horiek aldatu gabe–, eta aitortzen zuen, aldi berean, instalazioaren ekoizpen ahalmena baimendutakoa baino handiagoa zela eta instalazioak baimenduta zeukan baino ahalmen handiagoarekin funtzionatzen zuela; eta, horregatik, digestioak ahalmen horren arabera kudeatzeko plana onesten zuen.

Ez ziren berrikusi ingurumen baimen integratua jasotako alderdi teknikoak, tratatu beharreko hondakin kopurua tartean, eta nahiago izan zen berrikuspen hori geroago egin, ingurumen baimen integratuaren berrikuspena izapidetzen zenean Batzordearen abuztuaren 10eko 2018/1147 (EB) Erabakira egokitzeko, zeinaren bidez hondakinen tratamendurako teknika erabilgarri onenen (TEO) gaineko konklusioak ezartzen baitira.

2018ko abuztuaren 17an Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Batzordearen abuztuaren 10eko 2018/1147 (EB) Betearazpen Erabakia, zeinaren bidez ezartzen baitira hondakinen tratamendurako teknika erabilgarri onenen (TEO) gaineko konklusioak, bat etorri Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauarekin.

Ondorioz, ingurumen baimen integratua berrikusi behar zen, eta eguneratu, beharrezkoa izanez gero, 2022ko abuztuaren 17a baino lehen, instalazioa 2018/1147 (EB) Betearazpen Erabakira egokitzeko.

2022ko maiatzaren 3an, titularrak eskaturik, administrazio espediente hasi da. Espediente hori izapidetzen ari da eta jendaurrean jarri da 2022ko ekainaren 17an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bitartez. Halaber, ingurumen ebaluazioaren prozedura egiten ari zaio.

Berrikuspen hori egiten denean, hondakinak tratatzeko ahalmena eguneratuko da, bermatzeko bat datorrela biogas instalazioaren benetako tratamendu ahalmen teknikoarekin.

5. Bosgarren galdera: Bionergía Mendi SLren aurkako zehapen-espediterik abiarazi al da, Mendigorriko plantan tratatzeko baimendutako tona kopurua gainditzeagatik?

– Erantzuna:

Azaroaren 17ko 2321/2009 Ebazpenaren bidez eman zenetik martxoaren 7ko 62E/2022 Ebazpen deuseztatuaren bidez eguneratu zen arte, ingurumen baimen integratuak ez zuen berariaz mugatzen hondakinak kudeatzeko ahalmena. Horregatik, Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuak ez zuen hautematen baimeneko baldintzak urratzen ari zirenik.

Jardueran 2022ko ekainaren 10ean egindako beste ikuskapen baten harira egiaztatu denez, ins-

talazioan 2021ean jasotako hondakin kopurua 79.736 tona izan zen guztira (horietatik 16.900 tona minda). Orduan indarra zuen baimenaren I. eranskinean kopuru txikiagoak adierazten ziren (33.100 tona guztira, horietatik 9.500 tona minda). Trataturako kopurua ingurumen baimen integratu adierazitakoaren % 50 baino gehiago da.

Ondorioz, Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuak zehapen espeditentea abiarazteko eskatu zuen. Espediente hori dagoneko amaitu da eta enpresari zehapena ezarri zaio.

Iruñean, 19 de diciembre de 2022

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

10-22/PES-00211. Galdera, PLATENA ekainaren 15etik 17ra bitartean ez aktibatze erabakiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, PLATENA ekainaren 15etik 17ra bitartean ez aktibatze erabakiari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 12ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari José Javier Esparza jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00211), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

1. Zehazki nork erabaki zuen ez zegoela PLATENA ekainaren 15etik 17ra bitartean aktibatu beharrik?

2. Aktibatu beharra aztertu behintzat egin al zen? Nork eta zer egunetan?

3. Aztertu baldin bazen, zer arrazoiengatik baztertu zen ideia?

Eskaerari erantzunez, ohar hauek egiten dira:

Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdiei buruzko 8/2005 Foru Legearen 9.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, “babes zibileko planak arrisku kolektibo larriko egoera, larrialdi, katastrofe edo hondamendi publiko baten aurrean eman beharreko erantzuna antolatzen duten baliabide nagusiak dira. Egoera horietan herritarrak, ondasunak eta ingurumena babesteko behar diren giza eta gauzako baliabideak mobilizatu, koordinatu eta zuzentzeko bideak ezartzen dituzte”.

2022ko ekainaren 15ean, 03:00etan, Nafarroako Foru Komunitateko Baso Suteengatiko Larrialdietarako Babes Zibileko Plana (hemendik aurrera INFONA) aktibatu zen, 1. mailan, Tafallan eta Leireko mendilerroan piztutako suteen eboluzioak ustez arriskuan jar zitezakeelako azpiegiturak, eraikuntzak eta pertsonak. INFONAREN helburua da administrazio publikoek oro har erantzun eraginkorra ematea baso suteengatiko larrialdietan, eta behar dituzten baliabide eta bitartekoak jasoko dituztela bermatzea.

Egun berean, 08:00etan, Leireko mendilerroko sutearen nondik norakoari buruzko datuak kontuan izanik, eta inguruan kokatutako baliabide eta bitartekoen ahalmena gaindi zezakeen hedapena edo larriagotzea aurreikusirik, INFONAREN 2. larritasun maila aktibatu zen.

2022ko ekainaren 17an baso sutea piztu zen Leireko mendilerroaren inguruetan. Haren eboluzioa ikusirik, erabaki zen INFONA aktibatzea, 1. mailan. Planean aurreikusitako ohiko itzaltze baliabideekin kontrolatzen ahal diren suteetan maila hori aplikatzen da baldin eta aurreikusten bada, suak izan dezakeen eboluzioarengatik edo basoaren babesaren eta kontserbazioaren ikuspuntutik sentikorrak diren zonak ukitzeko arriskua-rengatik, neurriak ezarri beharko direla suak mehatxatzen ahal dituen pertsonak eta ondasunak babesteko.

Geroago, sutearen larritasuna zela eta, erabaki zen INFONA planaren 2. maila aktibatzea, beste administrazio batzuek bidalitako baliabideak aktibatu ahal izateko.

Sutea egonkortu zenean, INFONA plana 1. mailara jaitsi zen, eta aktibaturik eutsi zitzaion, eguraldi baldintzak kontrakoak zirelako eta sua itzaltzeko lanak amaitu gabe zeudelako.

Ekainaren 18an beste sute bat izan zen Legarda-Obanos aldean, eta INFONA plana 2. mailara igo zen.

Jarraian baso suteen abisu gehiago izan ziren hainbat tokitan, eta eragina orokorra izan zen. Izan ere, suak eragina zuen funtsezko zerbitzuetan, hiriguneetan eta komunikazio bideetan, eta bazitekeen pertsonak ebakuatu beharra izatea. Horregatik, zuzenean erabaki zen Nafarroako Babes Zibileko Lurralde Plana (hemendik aurrera PLATENA) aktibatzea 2. mailan.

Ez zen beharrezkotzat jo PLATENA lehenago aktibatzea, ordurako aktibaturik zegoelako INFONA, zeinak helburu baitu administrazio publiko guztiek erantzun eraginkorra ematea baso suteek sortutako larrialdi egoeretan eta behar dituzten baliabide eta bitartekoak jasoko dituztela bermatzea.

INFONAREN jarduketa eremua Foru Komunitate osoa da, hots, Nafarroako edozein toki, baso sute

batek larrialdia sortuz gero. Hala ere, Nafarroako lurraldetik kanpo ere esku hartzeko aukera aurreikusten da, lurralde mugakideetako administrazioekin lankidetzan.

PLATENA, berriz, gailu integral eta integratu bat da, baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketaren bidez eta behar diren prozeduren aurreikuspenaren bidez gai dena erantzuna emateko larrialdi egoera guztiei eta haiek ekar ditzaketan ondorioei.

Suteen egoeraren bilakaera kontuan izanik eta Nafarroako Foru Komunitateko larrialdi orokorra arindu zela ikusirik, 2022ko ekainaren 21ean, 19:00etan, larrialdi aurreko 0 egoerara beheratu zen PLATENA.

Azkenik, 2022ko ekainaren 22an, 09:00etan, PLATENA desaktibatu egin zen.

PLATENAREN antolaketa funtzionalari buruzko 3.2 apartatuan xedatuta dagoenez, aktibatzeke erabakia planaren zuzendaritzaren erantzukizuna da. Inguruabarren arabera, PLATENAKO larrialdi zerbitzuen eta erakunde osoaren aktibatze partziala edo osoa, berehalakoa edo progresiboa hautatzen ahal da.

Aktibatze horietako bakoitza erabakitzen denean Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuak jakinarazpena igortzen die Larrialdien Jarraipen eta Koordinaziorako Zentro Nazionalari (CENEM), Gobernuaren Ordezkaritzari, Nafarroako Foru Komunitateko babes zibilaren arloko agintaritzak eskudunei eta S.O.S. Nafarroa 112 Atalari.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguí

10-22/PES-00212. Galdera, ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduak aurreikusten dituen debekuak, ohar laranja mailarekin, Nafarroako Erdialdeko abiadura handiko trenerako obretan aplikatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduak aurreikusten dituen debekuak, ohar laranja mailarekin, Nafarroako Erdialdeko abiadura handiko trenerako obretan aplikatzeari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 12ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduak aurreikusten dituen debekuak, ohar laranja mailarekin, Erdialdeko abiadura handiko trenerako obretan aplikatzeari buruzkoa (10-22-PES-00212). Hori dela eta, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Ingurumeneko zuzendari nagusiaren txostenean dauden erantzunak helarazten dizkio:

1.- Foruzaingoak edo Ingurumena Zaintzeko Atalak egin al diete Erdialdeko abiadura handiko trenerako obren esleipen-hartzaile diren enpresei errekerimendurik, geraraz dezaten 222/2016 Foru Aginduak, ekainaren 16koak, 10. artikuluko 5. apartatuan zerrendatzen duen makineria astuna erabiltzearekin zerikusia duen jarduera oro, eskualde horretarako ohar laranja diraeino?

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Basozainen Zerbitzuak ez die errekerimendurik egin Erdialdeko abiadura handiko trenerako obren esleipen-hartzaile diren enpresei beren jardueraren zezaten. Ingurumen Zuzendaritza Nagusian ez dago jasota Foruzaingoan halako errekerimendurik egin duenik.

2.- Erantzuna ezezkoa bada, zer dela-eta ez da hartu neurririk ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduaren 8. apartatuan ezarritako debekuak bete ez dituzten nekazarien aurka hartu direnak bezalakorik, haiei eragotziz aipatu makineria dabilen edozein jarduera egitea? Beharrezkoak

diren neurriak hartuko al dira, bermatze aldera AZVI eta Obrascón Huarte Lain, SA (OHL) enpresek edo haien azpikontratek beteko dituztela ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduak lurzoru urbanizaezinari dagokionez edozein jarduera-motatarako ezartzen dituen debekuak?

Foru agindua eman zen Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legean xedatutakoa aplikatzeko, foru lege horren 37. artikuluan ezartzen baita Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren eskumena dela oihaneko suteei aurrea hartzeko eta haien aurka borroka egiteko behar diren neurriak planifikatu, koordinatu eta gauzatzea.

Prebentzio-neurriei dagokienez, 37. artikuluko 4. puntuan oihangintza arloko administrazioari esleitzen zaio mendietan eta mugakide diren eremuetan sute arriskua eragin dezaketean jarduerari mugak jartzeko ahalmena, bertatik iragateari barne.

Hain zuzen, 4. puntu horretan oinarritzen da 222/2016 Foru Aginduaren 10. artikuluan xedaturikoa; izan ere, mugak ezartzen dira mendietan eta mugakide diren eremuetan sute arriskua eragin dezakeen makineriari, hots, nekazaritzan eta oihangintzan erabiltzen denari. Hori dela eta, foru aginduan makineria horren erabilera hartzen da kontuan.

3.- Nork, edo zer kargudun politikok erabaki du Gobernuan ezen ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduak, uztailearen 1eko 152E/2022 Foru Aginduak eman zion testuarekin, lurzoru urbanizaezinean egiten diren jardueretarako ezartzen dituen debekuak ez direla aplikatzeko modukoak Erdialdean sute-arriskuari buruzko ohar laranja egonik egiten ari diren abiadura handiko trenerako obrei?

Aurreko galderaren erantzunean azaldu da zergatik ekainaren 16ko 222/2016 Foru Aginduak, uztailearen 1eko 152E/2022 Foru Aginduak eman zion testuarekin, lurzoru urbanizaezinean egiten diren jardueretarako ezartzen dituen debekuak ez diren aplikatzeko modukoak Erdialdean sute-arriskuari buruzko ohar laranja egonik egiten ari diren abiadura handiko trenerako obrei.

Iruñean, 2022ko azaroaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

10-22/PES-00299. Galdera, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoaren jarraipenerako organoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoaren jarraipenerako organoei buruzkoa. Galdera 2022ko urriaren 7ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatzizko galdera egin du (PES-00299); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

1. Zenbat aldiz bildu da batzorde estrategikoa? Zer datatan?

2. Zenbat aldiz bildu da kudeaketa operatiborako lantaldea? Zer datatan?

3. Hileko zenbat txosten eman du kudeaketa operatiborako lantaldeak?

2019. urtean, Nafarroako Gobernuko Barne Zuzendaritza Nagusiak erabaki zuen Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren plangintza estrategiko prozesu bat garatzea, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren 2020-2023 aldirako Plan Estrategikoa eginez.

Zerbitzuak orduan zuen egoeraren diagnostiko partekatua abiapuntu, plana erreferentzia nagusia izan zen 2023ra arte inplementatu beharreko jarduketa eta proiektuetarako. Zerbitzua sendotu eta hobetze aldera, 8 helburu estrategiko eta berriazko 36 jarduketa definitu ziren.

Plana onetsi zenetik hura abian jartzeko, betetzeko eta haren jarraipena eta kontrola egiteko lana egin da. Plana gauzatzeko joan da hainbat jarduketa eta proiekturen bitartez, eta gaur egun horiek garaturik edo garapen fasean daude, eta berriaz egindako espedienteetan jasorik.

Batzorde estrategikoa Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko zuzendaritza taldeak osatzen du. Aldian behin bilera egiten du zerbitzuaren kudeaketa arruntari eta Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren 2020-2023 aldirako Plan Estrategikotik eratorritako jarduketa eta proiektuen gauzatzeari eta kontrolari heltzeko.

Kudeaketa operatiboko lantaldearen eginkizunak, bestalde, agintedun operatiboekin aldi behin egiten diren bileren harira gauzatu eta bideratu dira.

Lan hori guztia 2020-2022 aldiko jarraipen oroitidazkian bildu da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko azaroaren 23an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko eta Funtzio Publikoko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

